

GOIATZ LABANDIBAR



erein

PUTZUA

GOIATZ LABANDIBAR

PUTZUA

Perzebal, 45

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra

(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;

91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko apirilean

Azaleko irudia:

Ane NARBARTE

Maketazioa:

Erein

© Goiatz Labandibar

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-945-1

L. G.: D 257-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

GOIATZ LABANDIBAR

PUTZUA



1
ODOLA

«Hil egingo naiz...».

Laurek oihu egin du. Baina ez du inork entzun.
Bakarrik dago etxean. Gurasoak lanean daude.
Ania institutuan.

Odola.

Gorria.

Gorri iluna.

Gorri ilun-erdi granatea.

Ez da guraizeekin hatza moztean edo lurrera
erorita belauna urratzean ateratzen den odolaren
kolorekoa.

Baina odola da.

Odola dario Laureri. Alutik.

Eta bakarrik dago etxean. Eta ez daki zer egin.

Beno, tira, bai. Laurek badaki zer egin. Ez da
hain tuntuna. Telefonoa hartu du eta amari deitu
dio, lantokira. Amak ez du lehenengo tonuan hartu
telefonoa. Ezta bigarreanean ere. Agian aldagelan

utzita izango du mugikorra. «Inoiz ez du hartzen deitzen diodanean! Inoiz ez du hartzen behar dudanean!», erdi-haserretu erdi-larritu da Laure. Malko batek irrist egin dio ezkerreko begitik.

—Laure, zer duzu?

Hara! Hartu du telefonoa amak!

Hipaka ari da Laure.

—Laure, ongi zaude?

—Ama... Hiltzen ari naiz —esan dio negar zotinka alabak. Ahotsari ere indarra falta zaio, haritxo bat besterik ez da Laureren boza, berez hain berritsu eta alaia den Laurerena.

—Hiltzen? Zer gertatzen zaizu?

—Odolusten ari naiz... Odola ateratzen zait...

—Nondik? —galdetu dio amak, kezkatuta.

—Ho... Hor... Hortik... —Ahots mehe-mehez ahoskatu du Laurek, sekreturik sekretuena kontatzen ari baita.

—Nondik?

—Hortik... Pototatik...

Isilik dago Laure. Isilik dago ama.

Amaren barrea lehertu da hariaren beste aldean. Min egin dio Laureri amaren algarak.

—Laure. Mesedez. Ez izan umea. Badakizu ez zarela hiltzen ari. Badakizu hilekoa dela. Zoaz bainugelara. Badakizu non jasotzen ditugun Aniak eta

biok konpresak eta tanpoiak. Hartu konpresa bat eta jarri kulerotan. Minik baduzu?

Laurek baietz esan nahi lioke amari. Bihotzak min egiten diola eta burua lehertuko zaiola. Esan nahi lioke, baita ere, berak ez duela konpresa bat jarri nahi hankartean. Horrek ez duela ezer aldaturiko, konpresa batek ez duela itxiko zauria. Ez dela geratuko odolustea.

—Ez da hilekoa.

—Minik baldin baduzu, hartu paracetamol bat. Badakizu hozkailuko zein apaletan dauden.

—Ama, ez da hilekoa.

Baina, berez, Laurek badaki hilekoa dela. Noski. Nahiz eta ez duen sinetsi nahi.

Ez du hilekorik nahi. Zergatik izan behar du hilekoa, nork eta berak, Laurek? Zertan hobetuko da Laureren bizitza hilekoarekin? Zertarako balio du hilekoak?

Jakina, Laurek badaki zer den hilekoa. Aspaldi ikasi zuten ikastolan nola funtzionatzen duen giza gorputzak. Nola emakume gorputzek obulatu egiten duten eta beren bizitzaren tarte handi batean, hilerok-odol jarria izaten duten. Ernaldu gabeko obulu bat baino ez da, gorputz barrutik kanporako bidea egiten. Jakina, Laurek badaki hilekoa eta ugalkortasuna ere erabat lotuta daudela. Natur Zientzietan ikasi du hori.

Laurek badaki hilekoa naturala dela. Badaki noizbait helduko zela berak ere hilekoa izateko garaia. Baina ezustean harrapatu du. Ez zuen espero gaur goizean, bat-batean, hilekoa izango zuenik. Eta, gainera, Laurek ez du hilekorik eduki nahi. Zertarako behar du berak hilekoa?

Hamahiru urte ditu Laurek eta jakin badaki gauza arrunta dela adin horretan hilekoa izatea. Aniari, Laureren ahizpa nagusiari, hamabi urterekin etorri zitzaion hilekoa lehendabizikoz. Badaki gelako neska batzuek, behintzat, badutela hilekoa. Ikusi izan du Olaia sabelaldeari helduta, dobla-dobla eginda, minarengatik aieneka. Horrela zegoen egun batean, irakasleak ikastolako botikinerara eraman zuen Olaia eta arratsaldeko saio-etara ez zen azaldu. Baimena eman zioten etxera joateko.

Baina Laurek ez du ia bularrik, ez du besape-etan eta aluan ile askorik. Oraindik urruti uste zuen odola. Horregatik, ezin du sinetsi hilekoa denik alutik dariona. Beste zerbait izan behar du. Zerbait hilgarria; ziur.

—Tira, Laure. Lanean nago. Gero arte.

—Ama, ama —erregu egin dio Laurek. Ez du nahi amak telefono deia mozterik.

Badaki amak ezin duela odol-jarioa moztu, baina lasaitu egiten du haren ahotsak.

—Ama, etorri etxera, mesedez...

Barre egin du amak, baina oraingoan ez da lehengo algara izan. Barre-txikia izan da.

—Laure, maitea, ezin dut... Lasai, ez da ezer gertatzen. Geratu etxean, trankil-trankil. Gaur bazu baimena ikastolara ez joateko. Bazkalorduan azalduko naiz. Maite zaitut, txiki. Orain, utzi egin behar zaitut...

Baina Laurek deia luzatu nahi du, nola edo hala. Gauza garrantzitsuak ditu oraindik amari esateko.

—Ama, ama! Ez eskegi!

—Zer, Laure?

—Ama. Ez kontatu aitari. Eta ez kontatu amonari.

Isilik geratu da ama.

—Ama? —galdetu dio Laurek, oraindik telefonoaren beste aldean dagoen ziurtatu nahi du.

—Ados, Laure. Lasai egon. Muxu.

KOMUNEAN

Komunera joan da Laure. Ireki du bigarren kaxoia. Badaki hor jasotzen dituztela amak eta Aniak konpresak eta tanpoiak. Konpresa bat hartu du. Kulero zikinduak kendu ditu eta garbi batzuk jantzi. Kendu dio itsasgarriaren gainean dagoen papera konpresari eta kuleroetan jarri du. Kuleroak igo ditu. Deseroso sentitu da. Oso deseroso. Ez: oso-osos deseroso.

Ondoren, komunetik egongelara abiatu da Laure, hanka zabalik. «Nik horrela ezingo dut inoiz etxetik atera –pentsatu du–. Nik horrela ezin dut bizi».

Berriz amari deitu dio. Baina amak ez dio telefonorik hartu. Mezu bat bidali dio mugikorretik Laurek, Whatsapp bidez. «Ama, nik horrela ezingo dut inoiz etxetik atera. Nik horrela ezin dut bizi». Bidali. Tik bat. Bi tik. Urdindu egin dira segituan bi tik-ak. Amak irakurri du mezua.

Dar-dar-dar. Erantzuna heldu da.

«Ohituko zara», idatzi du amak.

3 XABAT

Laureri hilekoa jaitsi zaio lehenengoz eta bakar-bakarrik dago etxean. Gurasoak lanean daude. Ania, institutuan. Normalean, Laureri gustatzen zaio etxean bakarrik egotea, berea bakarrik dela sentitzea bestela denena den espazio hori. Bakarrik dagoenean, ez zaio inor errietan hasten hankahutsik dabilelako hara eta hona, edo hankak sofaren gainean jarri dituelako. Baina gaur, oso bakarrik sentitzen da. Handiegia iruditzen zaio beren etxea. Handiegia bere logela. Handiegia egongela. Handiegia komuna bera ere.

Xabati deitu behar dio.

Laure izaten da etzekoen artean beranduen esnatzen dena. Gosaldu, jantzi eta oinez joaten da ikastolara, Xabatekin. Laure eta Xabat auzo berean bizi dira, parez pare. Leihotik elkar ikus dezakete. Biak nahiko aise moldatzen dira ikasgaiekin, baina batzuetan, Laurek hots egiten dio Xabati, etzeko lanen batekin trabatuta dagoenean.

Beste batzuetan, Xabat izaten da leihotik leihora Laureri laguntza eskatzen diona.

Xabat gelakidea du. Ttiki-ttikitatik izan dira gelakide; haur eskolatik. Beti moldatu izan dira ongi eta ordu asko pasatu dituzte batak bestearekin. Jolastu, bizikletan ibili, igerilekura joan, musika entzun dute elkarrekin.

Xabati esan behar dio gaurkoan bakarrik joan behar duela ikastolara. Bera ondoezik dagoela eta amak etxean geratzeko baimena eman diola.

Umeago zirenean gehiagotan elkartzen ziren eskolatik kanpo, baina azken ikasturtean gero eta gutxiago egoten dira elkarrekin. Laure orain gehiago ibiltzen da neskekin, eta Xabat, berriz, mutilekin. Etxetik ikastolara eta ikastolatik etxerako bidea eta leihotik leihorako elkarrizketa horiek geratzen zaizkie lehengo harremanetik.

Xabati esan behar dio gaur ez dela ikastolara joango. Ondoezik baitago.

Baina ez dio esan nahi hilekoa jaitsi zaiola lehenengo aldiz eta horregatik eman diola amak etxean geratzeko baimena. Xabaten etxeko telefonoa markatu du Laurek, propio. Erabaki du ez diola telefono mugikorrera deituko, mugikorrean bai edo bai Xabatek erantzungo baitu, eta gaur, Laurek nahi, desio edo espero du Estik hartzea telefonoa; Xabaten amak. Estiri egia kontatuko lioke.

Baina Xabati ez dio kontatu nahi.

Nahiz eta Laure oso gezurri txarra den. Gezurra esan nuen Getarian, ni baino lehen zen atarian. Amonak irakatsi zion esaera zaharra. Egi-egia da Laureren kasuan.

Txirriiiiiin. Txirriiiiiin. Txirriiiiiin. «Har dezala Estik, har dezala Estik, har dezala Estik...». Errezo modura errepikatzen du Laurek esaldia.

—Bai?

Xabat da.

—Xabat, Laure naiz. Gaur ez naiz ikastolara joango...

—Ados —esan orduko eskegi du telefonoa Xabatek.

Laure harri eta zur geratu da, telefonoa eskuan. Ez dio gezurrik esan behar izan Xabati, ez du aitzakiarik asmatu behar izan, ez baitio hartarako betarik eman. Baina triste dago Laure. Lehen baino tristeago. Xabati bost axola balitzaio bezala sentitu da. Eta Laurentzat, Xabat pertsona garrantzitsua da.

AURKIBIDEA

1. ODOLA	7
2. KOMUNEAN	12
3. XABAT	13
4. MUSUAK	16
5. ANIA	20
6. PIPERRA	25
7. KULERO ZIKINAK	32
8. OZ	36
9. HAMAIKETAKOA	40
10. DEIA	44
11. GARBANTZUAK	51
12. GALDERA	54
13. AITA	58
14. GELAN	67
15. HASIERAK ETA BUKAERAK	73
16. OPARIA	79
17. AMONA	85
18. OSPAKIZUNA	92
19. GONBIDAPENAK	96
20. EZPAINETAKOA	99
21. LHJZE	107